

Paperetan idatziak



LITERATUR EREDUA

Gure artean bada eredu bila dabilenik gure euskara idatziarentzat. Ez omen daukagu oraindik, denontzat eta egungo eguneroko egokia daitekeen prosa-eredurik. Eta Orixeren izena eman du norbaitek. Hura izan omen daiteke behar genukeen maisua.

Joxemari Aranalde, «Deia», 87-VII-4

POESIA

Baliteke poesia poesia ez izatea. Eta poetak poeta ez izatea. Mugak, jeneroen artean tartekatzen diren mugak, balizak falta dituzten garaian garelako. Baina ezin kendu zerbait aldatzen ari denaren sentsazio hori. Ez da nahikoa postatxagianismoaz edota poesia postetiopikoaz hitzegitea, azken finean ez bait da zor handirik literaturaren tabernan. Erronda hori aspaldi ordaindu zen. Egia da tragu hura edan genuela, baina ez zen gau hartako tragu bakarra izan, eta tabernariak badaki, edo jakin behar luke behintzat, horrenbeste.

Iñigo Aranbarri, «Eguna», 87-VII-2

MUSIKA AHOLKUA

Inportantea, musika ikasterakoan, solfeoa ongo egitea da. Batzuek presa izaten dute instrumentoa ikasketoa eta nolahi pasa nahi dute solfeoa. Baina, solfeoa ondo ikasi behar da. Bestalde, metodo gehiegirik ez da behar. Gaur egun metodo gehiegi daude. Metodo egokiena, seriotasunez lan egitea da.

Tomas Garbizu, «Aske», 4. zenbakia, 87ko maiatza

ALDIZKARIGINTZA



Ez da erraza kuantifikatzea «Ttipi-Ttapa» sor-tu zenetik hona zer lortu den, eta gainera, hiruhilabetekari izateak mugatzen du gure lanaren efektibitate. Baina garbi dago orain gehiago irakurtzen dela euskaraz, herri tiki-tiki bereziki eta normalean liburu bat erosten dutenen artean. Gauza bera erran daiteke idazten duen jendeaz. Orain, beti lan egiten dugun eta aldizkariko kolaboratzaileen artean, hamabost pertsona inguru aritzen gara zenbaki bakoitzean. Gehiago izan litezke baino hori hor dago. Euskal egunkari bat sortzen ez den bitartean gure lana urratsak jartzea da euskal prentsari buruz.

«Ttipi-Ttapa» aldizkaria, «Navarra Hoy», 87-VI-30

POETAK

Poeta finjitzaila bat duk, Pessoaen hitzak jorratuz, baina liburu bakoitzean norberaren zatitxoren bat agertzen duk baitere; neronek, ukan bazetia ene gauza askotxo poemetan, idealizazio hori, asperrari buruzko burutazioak, egunerokotasuna... eskizofrenikoa ageri nauk bati bat. Mundu asko zeudek, izan ere, pertsona batean.


Felipe Juaristi, «Hemen», 87-VII-3



Torrealdaiak puntua jarrita

Joxe Azurmendi

— Literaturan ibilia zara, bai idazle bezala eta bai aztertzaile bezala. Filosofian zabilta orain. Literatura utzi egin omen duzu. Zergatik literaturgintza eta literatur azterketa baztertu?



Literatur azterketa utzi, nazkaz utzi nuen eta aspertuta. UZEIren inguruko polemikan hartu nuen erabakia. Literaturgintza, poesia esan nahi baduzu, aspaldi utzi nuen.

Ondo pentsatzen badut, hauxe da seguruenik egiazko arrazoia: denborak aldatu egin dira eta hobe da bakoitza bere gauzetan ibiltzea. Niri filosofian historia interesatzen zait eta hor gustora nago. Literatur kritika hobeto dago profesionalki ere literaturarekin zerikusirik dutenen eskuetan. Profesionalismoa behar duelako. Eta bestela transmisiorik egoten ez delako ere bai. Idatz dezakezu nahi duzuna, transmisiorik ez da egongo, behar den tokian ez bazaude situatuta.

Gero, beti esan dugu, zubia egitea tokatzen zitzaioela gerraondoko gure belaunaldiari. Literatur kritika ondo asko egin dezakeen, eta egiten duen, jendea, orain badago, eta Unibertsitatetik laster gehiago etorriko da. Horien ordua da. Garaiz erretiratzen jakiteko arte edo zientzia berria ikasten tokatzen zaigu, beraz. Beti geratuko zaigu non lan egin.

Puntako argitalpenak

Gasteizko «Axular» liburudendak emandako datuak

Literatur liburuak:

- 1.— «Olagarroa», Mario Onaindia. Elkar.
- 2.— «Irene. Tempo di adaggio», Pako Aristi. Erein.
- 3.— «Narrazioak», Joseba Sarrionandia. Elkar.
- 4.— «Haur besoetako», Jon Mirande. Erein.
- 4.— «Emily», Patxi Perurena. Elkar.

Orotarikoak:

- 1.— «Gasteiz, harri gizatiarra», Antonio Ortiz de Urbina. Arabako Diputazioa.
- 2.— «Arantzazu», frantziskotarrak. EFA.
- 3.— «Euskal mitologia», Resano, Barandiaran... Pamiela.
- 4.— «Antología poética vasca», askoren artean, Vanguardia Obrera.
- 5.— «Larrún», 4. zenbakia.